

nak. Horien artean pobrezia beste sektoreetan baino askoz ere larriagoa izaten da.

Fundamentalismo hinduistak kasta sisteman du oinarria, Alejandro Nadalek esplikatu duenez. Betidanik, sistema horri esker boteretsuenek esplotazioari eta jazarpenari eutsi ahal izan diete. Erlijio kontuetatik abiatuta, ezberdintasuna onartzen da.

ESPLOTAZIOAREN MOZORROA

«Klase esplotazioa estaltzeko mozorrorik onena da kasta sistema», dio adituak. Tamalez, ezkerreko indar askok kasta sistema ezabatzeke helburua ahaztu egin dute, eskuinera egin baitute, botoak erakartzeko ahaleginean. Naike Desquesnes kazetariak idatzi berri duenez, Indiako alderdi komunistetako militante gehienak kasta altuetakoak izaten dira, eta, horren eraginez, kosta egiten zaie sistema hori salatzea.

Modik hauteskundeetan arrakasta izan zezan ezinbestekoa zen hedabideen laguntza. India da gaur egun egunkari gehien saltzen den herrialdea, Txinari bera-ri kendu baitio lehen postua, «The Economist» astekariaren arabera. Datu horrek Indiako kazetaritza

indartsu dagoela eman dezake aditzera, baina guztiz kontrakoa gertatzen ari da, Benjamin Fernandez kazetariak gaiaren inguruan egin duen erreportajearen arabera. «Ez gara prentsa enpresa bat, publizitate enpresa bat baizik», esan zion kazetariari Vineet Jain BCCL konpainiako zuzendari eragileak. «The Times of India» egunkaria da aipatu enpresaren hedabideetako bat: bost milioi ale saltzen ditu egunero, mundu osoan ingelesez egiten den beste edozeinek baino gehiago. Publizitate da lehentasuna, publizitateak, ez informazioa. Bide bera hartu dute beste hedabide askok. Europan gertatzen den moduan, gero eta esku gutxiagotan dago egunkarien jabetza. Horrenbestez, begirale askok salatu bezala, aniztasuna kaltetuta suertatzen da, informazioa akziodunen zerbitzura egiten baita.

Bestelako kazetaritzarik ere egiten da Indian. Esaterako, «Telhelka» aldizkariak ustelkeria kasuak utzi ditu agerian eta argitalpenak salatutako ministro batzuk zigortu ere egin dituzte epaileek. Orain irakurleen laguntzak ordaintzen du, bestela itxi egin beharko zuten-eta.

Kaxmirko bi neska musulman, etxera abere bazka eramaten.
Tauseef MUSTAFA | AFP

Keinu antzuak

Koldo Sagasti

Soineko zuridun gizon zaharra porlanezko parretara hurbildu da, tirriki-tarraka, esku dardartia azalera hotzaren gainean pausatu, burua makurtu, eta minutu batez kontzentratu egin da, bere superbotereak baliatuz harresi beldurgarria suntsitu nahiko balu bezala. Alferrik. Esfinterren kontrola ia galtzerainoko ahalegina eginagatik, ezerezean gelditu da gizon ustez ahalguztidunaren saiakera; begira zituen milaka fededunen itxaropen antzuak zapuztuta gelditu dira; eta errezoen jomuga zen izaki miragarriaren boterea, kolokan.

Keinuak, hala ere, munduari buelta eman dio. Betleemeko Jaio-tzaren Elizako bisitaldian zela, protokoloari ihes egin eta *apartheid* harresira gerturatu da aita santua, errezatza, otoitzaren indarrak azpiegitura birrindu nahian-edo, baina mirari saiakera hutsaren hurrengoan gelditu da. Elizako buruaren performanceak Victor Batareseh Betleem bertako alkate ohiak behin kontatutako pasadizoa ekarri dit gogora. Jesukristo ustez jaio zen hiriko alkatea izanik, Batareseh berak orduko aita santuarekin biltzeko aukera izan zuen; Wojtylari *apartheid* politika ren aurkako keinu eraginkorren bat egin zezan eskatzeko baliatu zuen. Elizako buruak horrelaxe erantzun zion: «Egon lasai, gizona, egingo dut otoitz zuen alde».

Keinuak ongi etorriak badira ere, antzuak dira benetako aldaketak izaki zerutiarren esku uzten badira. Aita santuak, giza eskubi-deekiko begirunea predikatzen duen leinu bateko buruzagia izanik, dituen milioika jarraitzaileen iritzian eragiteko erantzukizuna dauka. Hitz egin dezala argi, eta jarraera argia har dezala zanpatuen alde. Orduantxe izango dute sinisgarritasuna bere keinuek. Horixe izango da benetako miraria, eta ez Charlton Hestonek Itsaso Gorriko urak banatu zitueneko tankerako antzerki lotsagarria. •

